

Ardoaren eta Banaketaren Merkatuetako XI. Enpresa Sariketan

**EROSKI-K SARI BAT HARTU DU, GIZARTE
ERANTZUKIZUN KORPORATIBOAREN
KUDEAKETA ONENAGATIK**

- Sarien helburua da Espainiako ekoizleen eta banatzaileen lana aitortzea ardoaren balio kate osoan
- Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak eman dio saria EROSKIko Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloko zuzendariari, Alejandro Martinez Berriochoari

Madril, 2018ko martxoaren 8a.- Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioan ospatu dute [Ardoaren eta Banaketaren Merkatuetako XI. Enpresa Sariketa](#), eta [EROSKI](#)ri *Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Kudeaketa Onenagatik* eman diote saria. Sektoreko ordezkariarentzat, nahi eta nahiez joan beharreko eguna izaten da; ministroa ere (Isabel García Tejerina) hor izaten da, baita Kontseilu Erregulatzailerako eta Sektoreko Elkarteetako presidentek ere. Sarien helburua da Espainiako ekoizleen eta banatzaileen lana aitortzea Espainiako ardoaren balio kate osoan.

Kooperatibaren izenean hartu du saria EROSKIko Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. *"Oso eskertuak gaude ezagupen honekin, eta animoak hartzen ditugu aurrera jarraitzeko gure ekoizpen prozesu guztietan iraunkortasuna bermatzeko konpromisoaren alde. EROSKIIn, balioa duen elikaduraren alde egiten dugu, ez bakarrik prezio aldetik, eta gure balio katearen parte diren eragile guztiekin dihardugu horretan, haiek ere gure norabide berean baitoaz"*, esan du Martinez Berriochoak.

Ardoaren eta Banaketaren Merkatuetako Enpresa Sariketa honek 11. aldiz aitortzen du Espainiako ekonomiarako estrategikoa den industria mota horren ahalegina. Haren xedea da balio katearen katebegi guzti-guztietan Bikaintasuna aldezte.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)